

Ezkerraldea-Enkarterri Eskualdea

Dokumentu hau egiteko, 1986-2009 aldiko minbiziaren erregistroko datuak eta "EAEko minbiziaren herriz herriko atlas, 2003-2008" argitalpeneko emaitzak erabili dira. Helburua da azaltzea eskualdeko populazioan minbiziak zer-nolako bilakaera izan duen azken bi hamarkadatan eta, bide batez, udalerritako informazioa nabarmentzea.

Adinaren arabera estandarizatutako (Europako populazio estandararekin) eskualdeko tasen bilakaera modu grafikoan azaltzen da Erkidego Autonomoarekin batera; estimazioa egiteko Join-Point log linealaren erregresio ereduak erabili da. Denboran zeharreko bilakaerarekin batera, probabilitateen mapa ere erakusten da, bertan azalduz eskualdeko udalerriek daukaten arrisku-probabilitate handiago edo txikiagoa EAEko batez bestekoarekin alderatuta. Azkenik, kutxa-diagramek erakusten dute arriskua nola banatzen den Bizkaiko eskualdeetako udalerrietan, EAEkoarekiko.



Emaitza aipagarrienen laburpena

Kokapen guztiak (♂/♀)

Intzidentzia tasetan goranzko joera emakumezkoengan urteroko %1,3 da, gizonezkoengan joera berdintsu mantendu da 2003ra arte, hortik aurrera eskualdeko gizonezkoengan goranzko joera eten egin da.

Buru eta lepoa (♂)

Orokorrean beheranzko joera agertzen dute tasek, urtero %1,3ko jaitsieraz; Tasok EAEkoak baino handiago dira. Gueñes, Barakaldo, Urtuella, Sestao, Galdames, Muskiz eta Abanto eta Abanto-Zierbena arrisku probabilitate handiago dute EAEkoa baino.

Kolon-ondeste (♂/♀)

Tasak bai emakumeengan zein gizonengan gorazko joera orokorra erakusten dute. Barakaldo eta Sestao agertzen dira EAEkoa baino probabilitate handiagoaz.

Gibela eta behazun hodiak (♀)

Eskualdeko tasak EAEkoen gainetik daude eta hauek bezala beheranzko joera agertzen dute; urtero %0,44 jaitsiera eskualdean. Tasen herriz-herriko banaketan Barakaldo agertzen da probabilitate arrisku handiagoaz.

Birika (♂/♀)

Gizonek EAEko tasak baino altuagoak dute eta emakumeek baxuagoak. Gizonengan beheranzko joera duen bitartean, urtero %0,14 gutxiagoz, emakumeengan kontrako joera agertzen da: urteroko %5,05eko igoeraz.

Mesotelioma (♂)

Kasu kopuru urriak baina nabarmenkiro kontzentratuta ezkerraldeko herrietan.

Bularra (Mama) (♀)

1999 geroztik tasek beherako joera apala agertzen dute: urtero %1,23 beherantz. Portugalete agertzen da EAEko arrisku probabilitatearen gainetik.

Prostata (♂)

Tasetan joera aldaketa agertzen da azken urteetan, EAEn emandakoaren antzera. Herriz-herriko arrisku probabilitateak EAEkoen azpitik daude herri gehienetan.

Tiroidea (♀)

EAEn bezala, eskualdean 2006a geroztik tasek nabarmen gorantz agertzen dira %23,1 urtero. Tasok EAEkoen azpitik dira.

2
0
1
3

HARREMANA:
Epidemiologia Unitatea
Osasun Publikoko Lurralde Ordezkaritza.
Bizkaia.
Recalde Zumardia, 39A
4808 Bilbo



GIZONAK

	Intzidentzia tasen tendentzia, <i>JoinPoint</i> , 100,000 biztanleko Adinarekiko doituak (erreferentzi populazioa: Europa)	Arriskua EAEn baino handiagoa izateko probabilitatea
Kokapen guztiak (CIE-10: C00-C99, ez C44)		
Burua eta Lepoa (CIE-10: C00-C14)		
Kolon-ondeste (CIE-10: C18-C20)		
Birika (CIE-10: C33-C34)		
Mesotelioma (CIE-10: C45) *datu urriegiak JoinPointez joerarik antzemateko. Puntuak urteroko tasa doituak adierazten dute.		
Prostata (CIE-10: C61)		
	— Ezkerraldea-Enkarterri — EAE	

EMAKUMEAK

	Intzidentzia tasen tendentzia, <i>JoinPoint</i> , 100,000 biztanleko Adinarekiko doituak (erreferentzi populazioa: Europa)	Arriskua EAEn baino handiagoa izateko probabilitatea
Kokapen guztiak (CIE-10: C00-C99, ez C44)		
Kolon-ondeste (CIE-10: C18-C20)		
Gibela eta Behazun hodiak (CIE-10: C22-C24)		
Birika (CIE-10: C33-C34)		
Mama (CIE-10: C50)		
Tiroidea (CIE-10: C73)		
	<p>— Ezkerraldea-Enkarterri — EAE</p>	<p> ■ < 0.10 ■ 0.10 - 0.20 0.20 - 0.80 ■ 0.80 - 0.90 ■ >= 0.90 </p>

Eskualdetako Intzidentzi Arrazoi Estandarizatu leundua

